



TXOSTEN METEOROLOGIKOA –2018KO URRIA

Urrian batez besteko tenperatura ohikoa izan zen. Prezipitazioari dagokionez, EAEn mendebaldean hezea izan zen, ohikoa ekialdean. Muturreko egoerei loturiko abisuei dagokienez, gehienak prezipitazioagatik igorri ziren. Aipagarriak izan ziren hilaren 27tik 29ra izandako hotza eta elurte goiztiarrak, guztiz ez-ohikoak, izan ere 2008 eta 2012 urteetara jo beharko genuke urrian 1000 metrotik behera elurra topatzeko. Hilaren 14an Leslie urakan ohia ere aipatu behar da; egun hartan zaparrada trumoiatsuak bota zituen eta haize-bolada oso gogorrak izan ziren. Tenperaturari dagokionez, muturreko tenperaturak izan genituen; hilaren 13ko gaua tropikala izan zen kostaldean eta barnealdeko tokiren batean, eta, aldiz, mende honetan urrian inoiz neurtutako batez besteko tenperatura eta tenperatura maximorik baxuenak izan genituen hilaren 28an.

Prezipitazioa

Mendebaldean urria hezea izan zen, EAEn ekialdean, berriz, ohikoa. Pilatutako prezipitazioa kantauriko bailaretan izan zen handiagoa (Bidania 259.4 mm, Abusu 203.9 mm, Ibai Eder 190.1 mm), baita mendi inguruetan ere, esate baterako Bizkaia eta Araba arteko isurialdeen banalerroan eta Gipuzkoa ipar-ekialdean (Añarbe 207.9 mm, Otxandio 201.7 mm, Sarria 188.6 mm). Araba hegoaldean prezipitazioa urriagoa izan zen, baita Arabako Lautadako zenbait tokitan ere (Moreda 30.1 mm, Páganos 40.9 mm, Arkauti 47.9 mm, Trebiño 54.8 mm).

Euri-egunen (≥ 1 mm) kopurua antzekoa izan zen leku gehienetan, 9-10 artekoa, Araba hegoaldean izan ezik, han 4 eta 7 artekoa izan zen. Euri-egun gehienak hilaren amaieran izan ziren. Hilaren 6an euria oso ugaria izan zen (≥ 30 mm).

Hilaren 7a izan zen egunik euritsuena EAEn. Eguerditik aurrera euri iraunkorra egin zuen eta Gipuzkoa ipar-ekialdean 50 mm baino gehiago pilatu ziren (Berastegi 56.6 mm, Bidania 55.1 mm, Ameraun 53.1 mm, Lasarte 51 mm). Eskas eta Añarbe estazioetan pilatutako kantitatea izan zen aipagarriena, 102 mm eta 75.9 mm, hurrenez hurren. Bizkaian han-hemenka pilatutako kantitateak apur bat baxuagoak izan ziren (Almike 40.5 mm, Otxandio 36.9 mm, Sangroniz 36.6 mm, Amorebieta 33.3 mm). Eguerdi aldera zaparrada ertain-handiak bota zituen (Eskas 15.9 mm/h, Miramon 15.5 mm/h, Añarbe 14.1 mm/h).

Hilaren 14an Leslie urakan ohiak ekarritako euria ere aipatu behar da. Horri lotuta fronte hotz eta indartsu bat igaro zen EAetik goizean eta euria lurralde osoan egin zuen, mendebaldean ugariago (Igorre 51.5 mm, Amorebieta 48.5 mm, Urkizu 46.6 mm, Muxika 40.3 mm, Derio 40.1 mm). Horrez gain, Arratia-



Nerbioi eskualdean eta Durangaldean zaparrada oso handiak eta trumoitsuak bota zituen (Igorre 37.5 mm/h, Amorebieta 32.1 mm/h, Urkizu 30.8 mm/h).

Gero, hilaren 27tik 29ra izan zen hileko denboraldirik euritsuena. Ardatz bertikaleko Atlantiko antizikloi baten eta Mediterraneo mendebaldean zegoen depresio baten artean iparraldeko fluxu indartsua ezarri zen; fluxu hori latitude oso altuetatik zetorren. Fluxu horren ondorioz, aire-masa artiko oso hotza hegoaldera mugitu eta gurean zabaldu zen, negu itxurako giroa sortuz. Hilaren 27an elur-kota 1000 metrotik behera kokatu zen, egunaren amaieran 800-900 metro inguruan. Markina-Ondarroa eskualdetik Tolosalderaino 40-50 mm prezipitazio baino gehiago pilatu zen (Aizarnazabal 53.2 mm, Ibai Eder 46.9 mm, Bidania 44.5 mm, Iruzubieta 43.9 mm).

Hilaren 28an, arratsaldean, elur-kota are beherago kokatu zen, 600-800 metrora, Bizkaiko hegoaldeko eta Arabako iparraldeko zenbait lekutan 500 metrora tarteka. Egun horretan Bizkaian prezipitazioa ugariagoa izan zen: Gernika-Bermeo eskualdetik Aiaralderaino (Mungia 37.8 mm, Abusu 37.1 mm, Gardea 37.1 mm, Oleta 36.2 mm).

Hilaren 29an euria etengabe egiten jarraitu zuen eguerdira arte eta goizean Bizkaiko eta Araba iparraldeko zenbait tokitan 24 orduan 60 mm baino gehiago pilatu ziren (Balmaseda 64.9 mm, Sarria 61.8 mm, Sodupe-Cadagua 61.4 mm, Cerroja 59.8 mm, Oleta 59.7 mm, Gardea 58.7 mm, Otxandio 58.5 mm, Abusu 56.2 mm, Iurreta 54.7 mm).

Laburbilduz, denboraldiko lehen hotzaldi nabarmena izan zen eta ohi baino goiztiarragoa. Urrian elur-kota 1000 metrotik behera kokatzea erabat ezohikoa da. Azken urteetan 2008an eta 2012an baino ez da gertatu, hilaren 27an bi kasu horietan, eta ez zuen hainbeste elur egin, ez zuen hainbeste iraun eta elur-kota gorago kokatu zen.

Taula 1: Azken urteetan urrian pilatutako prezipitazioa, Euskal Autonomi Erkidegoko sare automatikoaren estazio adierazgarrietan.

	2018	2017	2016	2015	2014	2013	2012	2011	2010	2009
Deusto	142.0	15.4	10.8	123.0	22.0	34.1	92.9	55.8	81.9	59.8
Lasarte	167.6	61.8	40.6	68.3	29.1	107.9	240.5	60.5	85.8	87.1
Arrasate	162.4	38.6	18.6	66.8	18.3	33.1	158.9	46.3	92.6	65.4
Abetxuko	88.6	28.0	16.2	35.0	17.2	26.9	87.3	19.3	69.4	38.7
Párganos	40.9	20.1	9.9	60.7	33.3	34.2	94.1	14.5	38.9	33.2

Temperatura

Batez besteko temperatura ohikoa izan zen urrian, hau da, kostaldean 15 °C ingurukoa eta Arabako Lautadan 12 °C-tik gertukoa. EAE osoa kontuan hartuz



batezbestekoa baino 0.5 °C baxuagoa. Azken urteekin alderatuz, balio horiek dira baxuenak 2008koen atzetik.

Hilaren lehen bi herenetan egun beroak eta hotzak tartekatuz joan ziren, azken herenean, ordea, egun hotzak izan genituen bata bestearen atzetik.

Hilaren 5ean neurtu ziren tenperaturarik altuenak, kantauri isurialdearen barnealdean 30 °C ingurukoak (Ibai Eder 31.6 °C, Aranguren 31.2 °C, Sodupe-Cadagua 31 °C, Iurreta 30.7 °C), Mediterraneo isurialdean, berriz, 25 °C-ren bueltakoak (Zambrana 26.4 °C, Abetxuko 26.3 °C, Ozaeta 26.2 °C).

Hilaren bigarren herenaren hasieran giroa oso atsegina izan zen, tenperatura batezbestekoaren gaintik kokatu zen. Hegoaldeko adbezioari esker, hilaren 13an kantauri isurialdean tenperatura maximoak 27-30 °C artekoak izan ziren. Egundorietako tenperatura minimoak ere aipatu behar dira, kostaldeko hainbat tokitan 20 °C-tik gorakoak izan ziren eta (Deusto 23.8 °C, Bermeo 23 °C, Miramon 20.9 °C), baita barnealdeko zenbait tokitan ere (Saratxo 20.5 °C, Zizurkil 20.4 °C). Bilboko estazio adierazgarriaren serie klimatologikoan inoiz neurtu den tenperatura minimorik altuena izan zen.

Egunik hotzenak hilaren amaieran izan ziren, hilaren 28an eta 29an hain zuzen ere, egun horietan itsasaldeko aire-masa artiko baten ereginpean izan baikin. Urteko sasoi horretan espero daitekeena baino hotz askoz handiagoa egin zuen. La estazio guztietan bai batez besteko tenperatura, bai tenperatura maximoa urrian inoiz neurtutako baxuenak izan ziren, mende honetan behintzat. Hilaren 28an mendietako estazioetan termometroa 0 °C-ak gainditu ezinik ibili zen egun osoan (Oiz 0.1 °C, Iturrieta 0.1 °C, Herrera 0.4 °C, Orduña 1.6 °C) eta Arabako hainbat herritan maximoak 5 °C-tik beherakoak izan ziren (Pagoeta 3.9 °C, Egino 4.4 °C, Sarria 4.7 °C), kostaldekoak 10 °C-tik gorakoak ozta-ozta (Oleta 11.8 °C, Almike 11.1 °C, Oiartzun 10.7 °C).

Elurte baten ostean ohikoa denez, hilaren 30ean Mediterraneo isurialde osoan izotza egin zuen, Ebro ondoko eskualdean izan ezik (Iturrieta -4.2 °C, Egino -2.2 °C, Espejo -1.7 °C, Subijana -1.5 °C). Kostaldeko tenperatura minimoak 5 °C ingurukoak izan ziren.

Taula 2: Urrian, azken urteetan, neurtutako batez besteko tenperatura Euskal Autonomi Erkidegoko sare automatikoaren estazio adierazgarrietan.

	2018	2017	2016	2015	2014	2013	2012	2011	2010	2009
Deusto	15.5	17.0	16.7	17.4	19.5	18.8	17.0	17.7	16.2	17.3
Lasarte	14.3	16.0	14.8	15.4	18.0	17.2	15.5	14.6	14.9	
Arrasate	13.0	14.9	13.6	13.7	16.6	15.7	13.8	16.3	12.9	14.9
Abetxuko	11.8	13.5	12.4	12.6	15.1	14.5	12.9	12.8	11.7	13.5
Páganos	12.3	15.2	13.7	13.2	16.1	14.6	13.1	14.5	12.3	14.2



Haizea

Fluxua oso aldakorra izan zen urrian eta ez zen norabide nagusirik izan. Hilaren hasieran iparraldekoa eta hegoaldekoa tartekatuz joan ziren, bigarrenean lehenengo eta bigarren koadranteak gailendu ziren. Amaieran itsasaldeko fluxua izan zen nagusi, laugarren koadranteak, alegia.

Urria, ohi bezala, haizetsua izan zen. 10 egun ezberdinetan haize-bolada oso gogorrak neurtu ziren (≥ 70 km/h), hilaren 6tik 14ra eta 29tik 30era. Hori bai, 100 km/h abiadura-muga nekez gainditu zen.

Hilaren 12an gainditu zen muga hori lehenbizi, hegoaldeko adbekzio indartsu eta iraunkorra ezarri baitzen egun horretan, Europa ekialdean zegoen antizikloiaren eta Britainiar uharteen mendebaldean zegoen depresio indartsu baten eraginez (Orduña 114.8 km/h, Matxitxako 111.6 km/h, Arboleda 110.2 km/h, La Garbea 100.4 km/h).

Bitxikeria gisa, hilaren 14an neurtutako haize-boladak ere aipatu behar dira, Leslie ekaitz tropikalari loturikoak (Jaizkibel 97.8 km/h, Matxitxako 89.3 km/h, La Garbea 88.2 km/h).

Hilaren 29an hegoaldeko adbekzio indartsua izan zen eta haizeguneetan haize-boladek 100 km/h abiadura gainditu zuten (Punta Galea 108 km/h, La Garbea 104.4 km/h, Beluntza 104 km/h, Oiz 103.3 km/h), haizeguneak ez diren tokietan, berriz, 80 km/h-ko abiadura (Páganos 97.2 km/h, lurreta 83.5 km/h, Arrasate 81 km/h).

Analisia

Urriaren 1etik 6ra

Irailaren amaieran izan genuen egoera sinoptikoak jarraipena izan zuen urrian. Atlantikoan antizikloia gailendu zen, 500 hPa-eko mailan zegoen gailur indartsuaren isla, eta ekialdera zabaldu zen. Zerua hodei gutxirekin egon zen, orokorrean. Haizea hego-osagaira aldatu zen eta tenperaturak gora egin zuen; gailur termiko bat Penintsulan zabaldu zen eta hilaren 4an eta 5ean 16 °C ingurura ailegatu zen tenperatura.

Urriaren 7tik 8ra

Azoreetako antizikloia eta Frantziar zegoen depresio baten artean, azken hau goi-geruzako aire hotzeko aska baten isla, iparraldeko adbekzio nabarmena sortu zen eta eguraldia goitik behera aldatu zen. Bizkaiko golkotik fronte okluidu bat igaro zen eta zerua oso hodeitsu egon zen; egunaren bigarren partean euri iraunkorra egin zuen. Tenperatura asko jaitsi zen. Aska zirkulazio orokorretik askatu eta hilaren 8an Penintsularen ekialdean goi-geruzan askatutako depresio bat sortu zen. Hilaren 8an, goizaldean kantauri isurialdean zaparrada ugari bota zituen, baina eguna aurrera joan ahala eguraldiak hobera egin zuen.



Urriaren 9tik 13ra

Hilaren 9an goi-geruzan askatutako depresio horrek Levante zeharkatu zuen eta Mallorca uhartearen ipar-ekialdean uholde handia gertatu zen. Gero depresioa noraezean ibili zen; hilaren 10ean ekialdetik etorri eta gure lurraldetik igaro zen. Arratsaldean Arabako mendebaldean ekaitz handiak izan ziren. Hilaren 10etik aurrera Europako ekialdean omega itxurako blokeoa ezarri zen 500 hPa-eko mailan; lurrazalean antizikloi indartsu bat agertu zen, hilaren 12an 1032 hPa-ekoa izatera ailegatu zena. 850 hPa-eko mailan tenperaturak gora egin zuen berriro eta 15 °C ingurukoa izan zen. Hego-haizearen laguntzaz, lurrazaleko tenperatura ere nabarmen igo zen eta hilaren 13an 30 °C-ko maximoak neurtu ziren.

Urriaren 14a

Hilaren 14an, goizaldean, Atlantikotik etorritako Leslie urakan ohia Portugal iparraldetik pasa zen, ekaitz tropikala bihurtuta jada. Mendebaldeko zirkulazioan murgildu zen gero Leslie. Goizean fronte hotz indartsu batek lurraldea zeharkatu zuen eta euria lurralde osoan zabaldu zen. Frontean konbekzio handia izan zen, eta zaparrada eta ekaitz oso handiak bota zituen. Tenperatura nabarmen jaitsi zen eta arratsaldean atertzera egin zuen.

Urriaren 15etik 17ra

Hilaren 15ean eguraldia nabarmen hobetu zen. Leslie Mediterraneo aldera mugitu zen eta Katalunian euria barra-barra egin zuen; Frantzia hegoaldean berriro ere uholde handiak izan ziren. Penintsularen mendebaldetik Tropikoan jatorria zuen beste depresio bat igaro zen, Michael ohia. Bi depresioen artean gailur txiki bat sortu zen eta lurraldean zerua hodei gutxirekin egon zen. Hilaren 16an eguraldia egonkorra izan zen gurean, aldaketa handirik ez zen izan tenperaturan, baita hilaren 17an ere. Hilaren 17an, gauean, hodeiak ugaritu egin ziren, Galiziatik fronte bat hurbildu zitzaigun eta eguneko azken orduetan Bizkaian eta Araban euria egin zuen.

Urriaren 18tik 25era

Hilaren 17an aire hotzezko masa bat latitude baxuetan kokatu zen eta Gibraltarreko itsasartean agertu zen; ezegonkortasuna handia izan zen han eta uholdeak jazo ziren. Aire hotz hori egonkor egon zen, Atlantikora mugitzeko joerarekin, eta gero desegin zen. Kantauri itsasoan presio altua gailendu zen, Atlantikotik Errusiaraino hedatu zen, eta Penintsulan haizeak ekialdetik jo zuen. Goi-geruzan zirkulazio zonala ezarri zen, jet korronea latitude oso altuan zebilela. Eguraldia oso egonkorra izan zen egun haietan; zerua oskarbi, goizaldean hotz, eguneko tenperatura maximoak atseginak. Hilaren 18an eta 19an, aldiz, ezegonkortasuna izan genuen; ipar-ekialdeko haizea ibili zen eta Bizkaian eta Araba mendebaldean euri txikia egin zuen. Hilaren 23an Europa erdialdean aire hotza agertu zen eta presio altuen gerrikoa apurto zuen horrek, antizikloi atlantikoa iparraldean zabaltzen zen heinean. Haizea ipar-ekialdera aldatu zen eta hodeiak ugariagoak izan ziren, batez ere kantauri isurialdean, eguraldia egonkor mantendu zen arren.



Urriaren 26tik 29ra

Egun haietan itsasaldeko aire artikoa sartu zen gurean. 500 hPa-eko mailan aire-masa oso hotza zabaldu zen (hilaren 27an -32 °C-koa gure bertikalean) eta Afrika iparralderaino ailegatu zen. 850 hPa-eko mailan, berriz, airearen temperatura -2 °C ingurura jaitsi zen. Aire hotzezko mihi hori zirkulazio orokorretik askatu zen gero. Horren isla lurrazalean antizikloi atlantiko indartsu bat izan zen (1040 mb baino presio altuagoa), Groenlandiako iparralderaino hedatu zen eta isobarak zonalde polarretik gurera iritsi ziren. Mediterraneo itsasoan, berriz, hilaren 27an fronte bat igaro zen eta ziklogenesia gertatu zen. Hurrengo egunetan indartu egin zen depresioa eta Europa iparraldean zabaldu zen; Kantauri itsasoan depresio txikiagoak agertu ziren. Egun haietan euria ugaria izan zen eta hotz egin zuen; kantauri isurialdean ekaitzak izan ziren, txingorrek batera. Hilaren 28an eta 29an fronte okluitu batek euri iraunkorra utzi zuen gurean eta zenbait lekutan elur-kota 500 m-ra jaitsi zen. Temperatura 10 °C-tik beherakoa izan zen orokorrean eta mendi inguruetan eta Arabako zenbait tokitan izotz txikia egin zuen.

Urriaren 30etik 31ra

Hilaren 30ean Atlantikoko depresio bati loturiko fronte bat igaro zen eta aire artikoaren fluxua eten egin zen. Goizean depresioak hego-mendebaldeko haizea ibilarazi zuen eta temperatura maximoek gora egin zuten nabarmen, ez ordea minimoek; zerua hodei gutxirekin zegoen eta hauek jaitsi egin ziren. Arabako hainbat tokitan izotza egin zuen. Lurrazaleko frontearekin batera, goigeruzan aska berri bat etorri zitzaigun, lurrazaleko depresio txiki baten isla. Penintsularen ipar-mendebaldetik hego-ekialdera mugitu zen depresio txiki hori. Eguna aurrera joan ahala hodeiak ugartuz joan ziren eta gauean euri txikia egin zuen. Hilaren 31an ere zerua oso hodeitsu edo estalita egon zen. Egunaren bigarren partean euria lurralde osoan zabaldu zen eta ugariago egin zuen, Penintsularen ekialdetik etorritako fronte okluitu baten laguntzaz.






Oinarrizko datu estatistikoak

Taula 3: 2018ko urriko balio klimatikoak, Euskal Autonomi Erkidegoko sare automatikoaren estazio adierazgarrietan.

Estazioa	Batez besteko Temp. °C	Temp. max. °C	Temp. max.abs. °C	Temp. min °C	Temp. min.abs. °C	Izotz-egunak	Pilatutako euria l/m ²	Egun batean pilatutako euri max l/m ²	Euri-egunak.
Deusto	15.5	19.9	29.6	12.1	5.0	0	142.0	29.6	9
Lasarte	14.3	18.5	28.9	10.7	3.3	0	167.6	51.0	10
Arrasate	13.0	18.7	29.3	8.9	0.4	0	162.4	36.1	9
Abetxuko	11.8	18.0	26.3	6.9	-0.7	2	88.6	23.8	10
Párganos	12.3	17.8	25.1	7.9	0.8	0	40.9	16.8	7



Eguneko temperatura eta prezipitazioaren grafikoak




Pilatutako prezipitazioa
 Temperatura minimoa
 Batez besteko temperatura
 Temperatura maximoa




Prezpitazioaren jokaera


Behatutako prezpitazioa
Precipitación observada




Prezpitazio normala
Precipitación normal



Prezpitazio normalarekiko desbideratzea
Desviación respecto a la precipitación normal



Prezpitazio normalarekiko portzentaia
Porcentaje respecto a la precipitación normal





Muturreko egoerak

Urrian, 12 abisu hori igorri ziren, 3 prezipitazio iraunkorreatatik, 2 prezipitazio handiagatik, 3 elurragatik, 2 itsasaldeko arriskuagatik eta 2 izotzagatik.

- Hilaren 7an Gipuzkoa ipar-ekialdean 50 mm baino gehiago pilatu ziren; Eskasen eta Añarben pilatutakoa izan zen aipagarriena, 102 mm eta 75.9 mm hurrenez hurren (Berastegi 56.6 mm, Bidania 55.1 mm, Ameraun 53.1 mm, Lasarte 51 mm). Bizkaian han-hemenka pilatutakoa ere aipatu behar dugu, urriagoa izan zen arren (Almike 40.5 mm, Otxandio 36.9 mm, Sangroniz 36.6 mm, Amorebieta 33.3 mm).

Eguerdian euria barra-barra egin zuen eta zaparrada ertain-handiak bota zituen (Eskas 15.9 mm/h, Miramon 15.5 mm/h, Añarbe 14.1 mm/h).

Igandea, hilak 7: Abisu Horia prezipitazio handiagatik Gipuzkoan 15etatik 24etara ordu lokala.

- Hilaren 9an, arratsaldean, olatuen altuera adierazgarria 1.5 m ingurukoa izan zen, 13 s periodoarekin. Arratsaldeko itsasgora 17:39an ordu lokala, 4.81 metrokoa. Gainezka egiteko indizeak: $I=5.85$ m eta $I_{max}=6.2$ m.

Asteartea, hilak 9: Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: Kostaldeko kalteak 17etatik 18etara ordu lokala.

- Hilaren 10ean, goizean, olatuen altuera adierazgarria 1-1.5 m ingurukoa izan zen, 13 s periodoarekin. Arratsaldeko itsasgora 18:16an ordu lokala, 4.74 metrokoa. Gainezka egiteko indizeak: $I=5.8$ m eta $I_{max}=6.1$ m.

Asteazkena, hilak 10: Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: Kostaldeko kalteak 18etatik 19etara ordu lokala.

- Hilaren 10ean, goi-geruzan isolaturiko depresio baten ondorioz, Añanako eskualdean zaparrada trumoitsuak bota zituen, gero Gipuzkoa ipar-ekialdera mugitu zirenak. Zaparrada ertainak bota zituen, baita handiren bat ere (Zambrana 23.2 mm/h, Zaldiaran 10.4 mm/h, Sarria 6.4 mm/h).
- Hilaren 12an hegoaldeko adbekzio indartsu eta iraunkor bat ezarri zen Europa ekialdean zegoen antizikloi baten eta Britainiar uharteen mendebaldean zegoen depresio indartsu baten eraginez. Haizeguneetan haize-bolada oso gogorrak neurtu ziren (Orduña 114.8 km/h, Matxixako 111.6 km/h, Arboleda 110.2 km/h, La Garbea 100.4 km/h).
- Hilaren 14an Arratia-Nerbioi eta Durangaldean zaparrada trumoitsu oso handiak bota zituen, Leslie izeneko urakan ohiak eragindakoak. Goizean fronte hotz indartsu batek lurraldea zeharkatu zuen eta euria nonahi egin zuen, mendebaldean ugariago (Igorre 51.5 mm, Amorebieta 48.5 mm, Urkizu 46.6 mm, Muxika 40.3 mm, Derio 40.1 mm).



Estazioa	mm/h	Estazioa	mm/h
Igorre	37.5	Urkiola	19.8
Amorebieta	32.1	Añarbe	18.4
Urkizu	30.8	Abusu	18
Otxandio	25.9	Ibai Eder	17.7
Derio	23.3	Mungia	17.4
Muxika	22.9	Zarautz	16.5
Orozko	21.6	Andoain	16.2
Bidania	21.6	Zizurkil	16
Mañaria	21.5	Iurreta	15.8
Gardea	21.1	Arteaga	15.4
Areta	20.4	Iruzubieta	15.4
Berna	20.1	Gorbea	15

Igandea, hilak 14: Abisu Horia prezipitazio handiagatik 09etatik 21etara ordu lokala. Abisu Horia prezipitazio iraunkorragatik Gipuzkoan 10etatik 21etara ordu lokala.

- Hilaren 27tik aurrera Artikotik etorritako aire-masa oso hotz bat zabaldu zen gurean eta eguraldiak neguko itxura hartu zuen. Elur-kota 1000 metrotik behera kokatu zen egun horretan, azken orduetan 800-900 metro inguruan. Markina-Ondarroatik Tolosalderaino pilatutako prezipitazioa 40-50 mm baino handiagoa izan zen (Aizarnazabal 53.2 mm, Ibai Eder 46.9 mm, Bidania 44.5 mm, Iruzubieta 43.9 mm).

Larunbata, hilak 27: Abisu Horia elurragatik barnealdean 18etatik 24etara ordu lokala. Elur-kota egun amaieran 800-900 m-ra egongo da; baliteke ekaitz-guneetan beherago jaistea.

- Hilaren 28an elur-kota are baxuago egon zen, 600-800 metrora alegia, eta Bizkaia hegoaldeko eta Araba iparraldeko zenbait tokitan 500 metrora noizbehinka. Bizkaian egin zuen euri gehien, pilatutako kantitaterik altuenak Gernika-Bermeotik Aiaralderainoko estazioetakoak (Mungia 37.8 mm, Abusu 37.1 mm, Gardea 37.1 mm, Oleta 36.2 mm).

Igandea, hilak 28: Abisu Horia elurragatik barnealdean 00etatik 24etara ordu lokala. Abisu Horia prezipitazio iraunkorragatik Bizkaian eta Gipuzkoan 18etatik 24etara ordu lokala.

- Hilaren 29an euri iraunkorra egin zuen eguerdira arte eta goizean Bizkaiko eta Araba iparraldeko zenbait lekutan 24 orduan 60 mm baino gehiago pilatu ziren (Balmaseda 64.9 mm, Sarria 61.8 mm, Sodupe-Cadagua 61.4 mm, Cerroja 59.8 mm, Oleta 59.7 mm, Gardea 58.7 mm, Otxandio 58.5 mm, Abusu 56.2 mm, Iurreta 54.7 mm). Goizaldean elur-kota 600-800 metrora egon zen, arratsaldean 1000 metrotik gora kokatu zen.

Astelehena, hilak 29: Abisu Horia elurragatik barnealdean 00etatik 15etara ordu lokala. Abisu Horia prezipitazio iraunkorragatik Bizkaian eta Gipuzkoan 00etatik 15etara ordu lokala.



- Hilaren 29an hegoaldeko adbkezio indartsua zela eta, haizeguneetan 100 km/h-ko abiadura gainditu zuten haize-boladek (Punta Galea 108 km/h, La Garbea 104.4 km/h, Beluntza 104 km/h, Oiz 103.3 km/h), 80 km/h-ko abiadura haizeguneak ez diren tokietan (Párganos 97.2 km/h, Iurreta 83.5 km/h, Arrasate 81 km/h).
- Hilaren 29an eta 30ean Mediterraneo isurialdeko hainbat tokitan eta kantauri isurialdeko mendi inguruetan izotz txiki-handia egin zuen.

Estazioa	hilak 29 (°C)	hilak 30 (°C)	Estazioa	hilak 29 (°C)	hilak 30 (°C)
Iturrieta	-2.3	-4.2	Abetxuko	-0.1	-0.7
Egino	-1.1	-2.2	Altube	-0.7	-0.7
Roitegi	-1.6	-2.1	Etura	0.1	-0.6
Espejo	-1	-1.7	Gorbea	-0.1	-0.4
Subijana	-0.9	-1.5	Pagoeta	-0.6	-0.4
Antoñana	-0.9	-1.4	Kapildui	-1	-0.4
Navarrete	-1.1	-1.4	Orduña	-0.2	-0.1
Ozaeta	-0.1	-1.2	Urkiola	-0.4	0.1
Trebiño	-0.7	-1.2	Zaldiaran	-0.3	0.2
Ilarduia	0	-1.1	Herrera	-0.7	0.2
Albaina	-0.8	-1.1	Oiz	-0.7	0.4
Salvatierra	-0.3	-1	Bidania	-0.2	0.9
Sarria	-0.7	-0.9	Eskas	-0.1	1.6
Beluntza	-0.3	-0.8			

Asteartea, hilak 30: Abisu Horia muturreko tenperatura baxuak/izotzagatik Araban 00etatik 10etara ordu lokala.



Terminologia

Batez besteko tenperatura: hileko batez besteko tenperatura.

- *Tenperatura maximoa:* eguneko tenperatura maximoen hileko batez bestekoa.
- *Tenperatura maximo absolutua:* hileko tenperaturarik altuena.
- *Tenperatura minimoa:* eguneko tenperatura minimoen hileko batez bestekoa.
- *Tenperatura minimo absolutua:* hileko tenperaturarik baxuena.
- *Izotz-egunak:* hilean, tenperatura 0 °C-tik behera egon deneko egun kopurua.
- *Pilatutako prezipitazioa:* hilean pilatutako prezipitazio totala.
- *Eguneko prezipitazio maximoa:* hilean, eguneko prezipitazio total altuena.
- *Prezipitazio-egunak:* hilean, estazioak ≥ 1 mm-ko prezipitazioa neurtzen dueneko egun kopurua.

Temperaturaren maiztasun-indizea (f) . Irizpidea:

- *Erabat beroa:* tenperaturak, 1971-2000ko denboraldiko balio maximoa, gainditzen duenean.
- *Oso beroa:* $f < \%20$. tenperatura, urterik beroenen $\%20$ ari dagokion tartean dagoenean.
- *Beroa:* $\%20 \leq f < \%40$.
- *Ohikoa:* $\%40 \leq f < \%60$. tenperatura erdiko balioaren inguruan aurkitzen denean.
- *Hotza:* $\%60 \leq f < \%80$.
- *Oso hotza:* $f \geq \%80$. tenperatura, urterik hotzenen $\%20$ ari dagokion tartean dagoenean.
- *Erabat hotza:* tenperatura, 1971-2000ko denboraldiko balio minimora irizten ez denean.

Prezipitazioaren maiztasun-indizea (f) . Irizpidea:

- *Erabat hezea:* prezipitazio-kopurua, 1971-2000ko denboraldiko balio maximoa, gainditzen duenean.
- *Oso hezea* $f < \%20$. prezipitazio-kopurua, urterik hezeenen $\%20$ ari dagokion tartean dagoenean.
- *Hezea:* $\%20 \leq f < \%40$.
- *Ohikoa:* $\%40 \leq f < \%60$. prezipitazio-kopurua erdiko balioaren inguruan aurkitzen denean.
- *Lehorra:* $\%60 \leq f < \%80$.
- *Oso lehorra:* $f \geq \%80$. prezipitazio-kopurua, urterik lehorrenen $\%20$ ari dagokion tartean dagoenean.
- *Erabat lehorra:* prezipitazio-kopurua, 1971-2000ko denboraldiko balio minimora irizten ez denean.

Testuan erabilitako beste termino meteorologikoen azalpena hurrengo terminologi gidan aurki daiteke:

http://www.euskalmet.euskadi.net/s07-5893/eu/contenidos/informacion/manual_estilo/eu_9900/eu_manual.html.

OHARRA: txosten honetan erabilitako datuak behin-behinekoak dira eta erabat balioztatzeke daude.